

“Jainkoari eskerrak ematen dizkiogu bi alaba hauengatik”

Leire Zalba eta Roberto
Gallastegi, durangotarrak,
beren Down Sindromedun
alabei buruz hitz egiten digute

2005 Abe 21

Zenbat seme alaba dituzue?

Lau seme alabak dauzkagu,
zaharrena Ander deitzen da, bost
urte ditu. Bigarrena, Asier, hiru urte
ditu eta bizkiak, Uribarri eta Nerea
22 hilabete dituzte eta Down

Sindromedunak dira. Adierazi nahi dugu Down Sindromea ez dela gaixotasun bat. Ez da senda edo gutxi daitekeen zerbait. Down Sindromea irregulartasun kromosomiko bat da, 21. kromosoma gehiegi edukitzeagatik. Nerea eta Uribarri “21 Trisonomia” daukate, mota arruntena, 21. kromosoma bat gehiago edukitzea da.

Guk, behin baino gehiago, esaten dugu “21 Trisonomia bedeinkatua”. Hau gauza garrantzitsua da. Nerea eta Uribarri jaio arte ez genekien ezer. Gainera haurdunaldia era bat normala izan zen. Leiren adinagatik, 28 urte, ez genuen beldurrik, ez gu ezta medikuek. Gertatzen dena da batzutan faktore bat ahazten dugula, Jainkoa. Berak protokolo eta estatistikei ez die begiratzen, zeren bera baita bizitza sortzen duena eta izan daitekeena edo ez dena erabakitzen duena.

Nola hartu zenuten zuen alabek Down Sindromea zeukatela?

Zure alabak Down Sindromedunak direla esaten dizutenean ez dakizu zeinek diren zure sentimendual: pena, tristura, errukia... zeren eta ez gara engainatu behar, nork nahi du Down Sindromedun seme-alabarik? Baina polikiago begiratu genituenean, hartu eta musukatu genituen... benetan zoriontsuak izan ginen, pentsatu genuen familia aproposena ginela haur horiek hartzeko. Beste biak bezala, edo gehiago maite ditugu. Benetan haur horiek badaukate zerbait, eta gu eman dezakegun baino askoz gehiago eman dezakete.

Jaio eta hurrengo egunean, Euskadiko Down Sindromearen Fundazioko matrimonio bat etorri zitzaigun bisitatzera eta hobeto adierazi ziguten Down Sindromea zer zen, zein gaiz mota izan

ditzaketen, zein garrantzitsu den txikitatik estimulatzea. Benetan eskertzen dugu lagundu gaituen senar-emazte hari eta Euskadiko Down Sindromekeko Fundazioari.

Zein iritzi duzue Ama zelulekin ikertzeari buruz? Beharbada zuen alaben arazoa bezalakoak konpon ditzake...

Gure alaben arazoa ez du konponduko. Zelulen ikerketa gaiari buruz Eliz Katolikoaren Katekismoaren iritzi berakoa gara, hau da pertsona eta gizartearen zerbitzurako izan behar da. Behar bada arriskutsuena da ikerketa horiek gizakien enbrioiekin egiten denean eta pentsa dezakegu edozein moduan erabil ditzaketela. Enbrioia bat gizaki bat da eta horrexegatik ukiezina.

Zuen bizitza horrelako bi alabekin aldatu da?

Gure bizitza ez da ezertan aldatzen, eta aldatzen bada onera da. Bi alaba hauek familia gehiago elkartu dute eta bat baino gehiagori pentsaera aldatu dio. Hau esaten dugu bikote askok esan digutelako gure familia ezagutu eta gero ez daukatela Down Sindromedun haurrak izateko beldurrik, gainera gure alabatxoak zoragarriak dira.

Jainkoari eskerrak ematen dizkiogu bi alaba hauengatik. Ez dakizue zenbat gauza haiek bakarrik egin ditzaketen... Bere hondotik igarotzen den edonori irribarre bat ateratzea lortzen dute.

Zer esango zeniokeste Down Sindromedun haur batez haurdun dagoen emakume bati?

Lehendabizi esango geniokeena ANIMO!! izanen zen. Haur hori opari bat da. Jaikoak gauzak bidaltzen dituenean ondo badaki nor bereizten duen. Berak beraiengan misio

zoragarri hori betetzeko konfiantza
osoa dauka, eta behar duten grazia
guztia emanean dizkie horretarako.
Eman dezaketen banio gehiago
hartuko dutela eta baita ere esan
badaudela horrelako haurrei
laguntzeko elkarteak, guri Down
Sindromearen Fundazioak asko
lagundu gaitu. Benetan
harrerakorrak izan dira gurekin eta
baita ere haurrei benetako arreta eta
maitasunez zaintzen dituztela
gainera garrantzi handia ematen
estimulazioari, beharbada tontakeri
bat emango du baina heziketa on
batetarako garrantzitsua da.

.....